

**Bidebieta**


# Parkea konpondu beharra

Juan Karlos Gerra kaleko parkean elkartu ohi diren neska-mutilek sinadurak biltzeari ekin diote, Udalak bertan konponketak egin ditzan eskatzeko. Besteak beste, saskibaloia kantxako zorua, txirrista eta kulunkak berritzea nahi dute gaztetxoek.

**P**arkeak bi gune ditu. Errepidetik gertuen dagoen tokian, txirrista, kulunkak eta eserlekuak daude. Parkearen barrualdean, saskibaloia jokalekua dago. Parkea, hala ere, duela 20 bat urte egin zuten eta gaur egun, begibistakoa da zenbait konponketa lan behar dituela. Parkean bildu ohi diren neska-mutilek sinadurak biltzen hasi dira Udalak parkea zaharberitu dezan eta dagoeneko, 800dik gorasindura lortu dituzte. Hauek alkatari helarazi nahi dizkiote luzegabe.

**Aterik ez**


Alde batetik, txirrista eta kulunkak ez daude zoruan behar bezala finkatuta. Ondorioz, neska-mutilek bat kulunkatzen denean, kulunkak sostengatzen dituen egitura osoa mugitzen da. Bigarrenik, iturria egon badago, baina urik gabe. Parkea zabaldu zutenean iturria jarri zuten, baina duela zenbait urte iturri inguruan xiringak agertu zirenez, ura moztea erabaki zuten drogazaleak bertara joan ez zitezten. Gaztetxoek iturriak berri-



ro ura izatea nahi dute. Hirugarrenik, parkeak ez du aterik eta horrek buruhaustea sortu ohi dizkie gurasoei. Izan ere, haurrak, askotan, errepidera ateratzen dira pilotaren edo baloiaren bila, gurasoak konturatu gabe.


**Muturrekoak**

Parkearen barrualdeko saskibaloia jokalekuan ere zenbait konponketa egin behar direla diote gaztetxoek. Zoruan zuloak eta pitzadurak daude, eta haur batek baino gehiagok muturrekoa hartu ditu. Bestalde, saskiatatik pintura eta kristalezko zatitxoak erortzen direla diote saskibaloian jokatzen dutenek. Gainera, inguruko neska-mutilek jokalekuko zati bat frontenisean jokatzeke egokitzea eta futboleko jokatzeke ateak jartzea nahi dute.



**Danborradaren entseguak**

Txanpon txikiak maiztaren 29tik ekainaren 1era bitartean izango dira eta urtero legez, danborrada izango da festetako ekitaldi nagusienetakoa. Danborradaren entseguak hilaren 20an, 22an eta 27an izango dira 19.30ean, Mendiola ikastetxean, eta auzotar orok parte har dezake.



**Argitalpen honen edizioan lankide:**



**kutxa**  
gizarte ekintza